


Ene Jesus

50 urte. Edizio eguneratua



Ramon Saizarbitoria

Bilduma: Narratiba, 164

Formatua: 150 x 220 mm

Orrialdeak: 128

Koadernaketa: Paper-azala

Argitalpen data: 2026-05-04

ISBN-a: 978-84-1093-067-4

Materia: Helduentzako literatura

Salmenta prezioa

19,50 €



Gela batean itxita daukaten gizon bat. Gizon hori historiak kontaktzen saiatzen da. Kontatu nahi lituzkeen historiak gogoratu nahi ez lituzkeen historiekin korapilatzen zaizkio: lagunak, Mutua, Samuel, Abel, eta batez ere Marga. Aitaren gorpua, etxean. Eta ama. Ama izugarria. Amaren maitasun itogarria. Elementu minimoekin ondu zuten Saizarbitoriak, kontakizun latz, etsi, esperantzarik gabeko hau.

Ramon Saizarbitoriaren hirugarren nobela da *Ene Jesus*. 1976an argitaratu zuen, *Egunero hasten delako* eta *Ehun metroren* ondoren. Bi hauek orduan sortzen ari zen euskal irakurleko berriaren berotasuna jaso bazuten, *Ene Jesus* nobelak isilik utzi zituen irakurle horietako asko. Mutu. Urte askotako isiltasuna eragin zion idazleari ere. *Ene Jesus* argitaratu ondoren, hemeretzire urte pasatu zituen Saizarbitoriak nobelarik argitaratu gabe. Bere nobelagintza mutur posible bateraino eramana zuen testu honekin.

Historiak kontatu ezinetik abiatuta, nobela muturreko, nobela hunkigarri, nobela ahantz ezina idatzi zuen Ramon Saizarbitoriak. Irakurle ausartentzat idatzia, orduan bezala gaur egun ere.

BAKARDADEA - MEMORIA - PORROTA - EZINA

Ramon Saizarbitoria



Ramon Saizarbitoria (Donostia, 1944). Soziologoa eta idazlea. 1967an LUR argitaletxea sortu zuen beste idazle batzuekin batera, eta 70eko urteetan *Oh! Euzkadi* Literatur aldizkaria. Euskal narratzailek ezagunenetako eta baloratuenetako bat da bai Euskal Herri barruan bai kanpoan ere. Hauek dira bere nobelen izenburuak: *Egunero hasten delako* (1969), *Ehun metro* (1976), *Ene Jesus* (1976), *Hamaika pauso* (1995), *Bihotz bi* (1996), *Gorde nazazu lurpean* (2000; jatorriz liburu honetakoak izanik, argitalpen bakartua izan zuten barruko kontakizun hauek: *Gudari zahararen gerra galdua*, *Rossetti-ren obsesioa* eta *Bi bihotz, hilobi bat*), *Martutene* (2012) eta *Lili eta biok* (2015). Bioleta sailean argitaratuak ditu gazteentzako bi kontakizun: *Kandinskyren tradizioa* (2003) eta *Miren eta erromantizismoa* (2019). *Aberriaren alde (eta kontra)* saio aipagarria 1999koa da.

Hainbat aldiz irabazi du Kritika saria eta Euskadi Literatura saria bere eleberriekin.

http://eu.wikipedia.org/wiki/Ramon_Saizarbitoria